

Hernani

Joxean AGIRRE

Uste dut Bohumil Hravalek esaten zuela Pragan badirela kale batzuk hainbeste eskulturarekin non garagardotegitik balantzaka ateratzen diren edaleek beti izaten duten eskura brontzeko heldulekuren bat.

Sagardotegitik bueltan Hernaniko kaleetan barrena nenbilela pentsatuen ez zela gaizki egongo herri horretako kaleetan ere eskulturaren batzuk jartzea txotxetik datozen edaleak segurtasun handiagoarekin ibil daitezten. Badakit Hernanin dagoela Txillida Leku, aire libreko museorik ederrenetakoa munduan, eta badituela Ruiz Eginok ere lanen batzuk kalean. Baina nik alde batera utziko nituzke Oteizaren kaxa hutsak, Malevichen unitateak edo Rodchenkoren astrolabioak eta, esate baterako Bilbon, hain modan jarri diren eskultura hiperrealistetara joko nuke eta Agirre lehendakariari, Blas de Oterori edo Ramon Rubiali eskainitakoak bezalakoak jarriko nituzke, Hernanin, kale erdian. Txirritak han beharko luke, Saiburuk ere bai, eta sagardotegiko beste hainbatek, Udarregik esaterako, auzokoa den arren.

Alkoholaren kontsumoa fenomeno konplexua da oso. Bakarrik penak itotzeko edaten dutenengandik hasi eta taldean zerbait ospatzeko edaten dutenenganaino soka luzea dago. Txotxada, beharbada, sozializatzeko edateko ohitura horretan kasurik eredugarriena, trago bat egiteko mahaitik altxatzen zaren bakoitzean ezagun edo adiskide berri bat egiten baituzu.

Niri bikoteka egiten den kontsumoa barkakizun iruditzen zait («maitasuna binakako komunismoa da», esan zuen Badiou gure gaztetako irakasleak). Inbidia ematen didatela esaten diot emazteari terraza batean ardo kopa

bana aurrean dutela ikusten ditudan senar-emazteek, nik ardo bat edaten dudan bakoitzean berak ura edaten duelako eta ardo eta ura ez direlako oso ondo ezkontzen.

Bikoteka edango zuten Mattin Trekkuk eta bere emazteak ere seguru asko, emazteak, Mariek, argitaratu zuen oroitzapen liburuan eszena eder bat ageri baita, biak mahastiari sulfatoa botatzen ari zaizkiola, zukuak ekarriko dien alaitasunaz mintzatuz.

Ahetzeraino joan garenez, Anje Duhalderen aita aipatuko dugu, Arrangoitzeko etxean ardoa egiten baitzuten. Urte batean herriko apaizak ardo berria probatu eta ahula zegoela esan zion. Semea, Anje, bidali zuen bizikletan Larunera alkohol bila eta litro batzuk bota zizkion ardoari. Apaiza hurrengoan etorri zenean ardoa probatu eta asko hobetu zela esan omen zuen, gorputza egiten ari zitzaiola alegia. •

Azkura

Amagoia MUJIKATELLERIA

Zorionak emakume guztiei», bota du gizonezkoak martxoaren 8an. Goizean goizetik azalean sentitzen dudana azkura piztu zait berriro. Zergatik nago deseroso? Zergatik erdi haserre-amorratuta? Nondik datorkit egonezin bitxi hau? Martxoaren 8 zoriontsuak bizi izan ditut. Aliatuak-lagunak alboan, borroka eder eta beharrezko baten parte sentitzearen plazera izan dut azalean sikiera ordu batzuetan. Egia da martxoaren 9 guztiak igualak direla. Bezperan kulero moreak jantzi izanak ez duela ezer aldatzen, ez

bada unean uneko laineza. Hori ere garrantzitsua, noski.

Baina aitortu behar dut aurtengo martxoaren 8a eztarrian trabatuta geratu zaidala, ez atzera ez aurrera. «Sanbalentindu» egin dela sentitu dut. Bularretakoetan deskontuak eskaini dizkidate, ezpainetakoetan bi baten prezioan, eskaintzak bonboietan, emakumearen ikurra aparkaleku pribatuen pantailetan. Feministak agertu zaizkigu izkina guztietatik; jertse, belarritako, bufanda moreak nonahi. Mezu melengak whatsapp taldeetan, emakume izatearen zo-

riontasun infinitua iragarkietan... eta ni, aldrebestuta. Pozik, behintzat, ez. Mugituta, aztoratuta.

Feminismoa adineko emakume jakintsua dela uste dut, ilea urdinduta eta zimurak oparo. Askok ikusi, bizi izan, sufritu duenaren azala eta begiratua soinean. Imajinatzen dut aulkitxo batean eserita, zorrotz eta zuhur, berriz ere patriarkatuak ziria sartuko digula konturatuta. Postureoaren garaian, denak hain feminista eta parekide. Hala balitz, gure kaleetan ez litzateke hainbeste min eta ezin pilatuko urteko gainontzeko egunetan. •